

Beso biurra chit motela du  
 Zeñaz ez dan ezer fiyo,  
 Iñoiz edo bein saiyyatzen bada  
 Osoki ukatzen diyo;  
 Choko aldera pelotarikan  
 Iñork botatzen badiyo,  
 Sayatu arren achitu nairik  
 Ez diyo ezer baliyo.

Bañan bekokiz askotan oi da  
 Jartzen biziroki illun,  
 Zeñaz orduan pelotariya  
 Zeiñ dan erakusten digun;  
 Beso biurrak ukatu arren  
 Zankoz arki da chit bigun,  
 Nere iritziz esan det zer dan  
 Euskal pelotari *Irun*.

### **PEDRO ARRESE IGOR** (*PORTAL*)

---

Idi, uztarri eta akullu  
 Utzirik era bat oso,  
 Pelotaritza ager zitzayon  
 Beretzat guztiz eroso;  
 Igarri zuben itzantzan zala  
 Biziko beti nekoso,  
 Argatik orain dago igari  
 Urre putzutan chit gozo.

Aurre jokuan gogorra dala  
 Denok degu aitormena,  
 Orren besuak dala diruri  
 Argiñ malluen kirtena;  
 Pelotaritzan achitua du  
 Malla goitsu ta lenena,  
 Plazan aguro begiz jotzen du  
 Uts-unak duben legena.

Beso biurrez gogor jotzen du  
Besagaindikan ere bai,  
Ez da estutzen ezergatika,  
Gutziz ibiltzen da lasai;  
Jartzen danian chisterarekiñ  
Joku kontrakuaren zai,  
Erakusten du noraño duben  
Indarrez pelota jo nai.

Plaza barrenge autsak ederki  
Ditu chisteraz astintzen,  
Eta besua ondo badauka  
Ez du jokurik arintzen;  
Atze aldetik asten danian  
Aurrekuari agintzen,  
Berak nai duben gisa, pelota  
Du joerakiñ zatitzen.

Irura-tikan agertua da  
Orlako pelotariya,  
Aurrenetikan izandu zana  
Jokalai eskulariya;  
Begi zorrotzez ikusi ziyon  
Joku oni belarriya,  
Argatik orain deitzen diyote  
*Portal* ikaragarriya.

JUAN IGNAZIO URANGA.

